

Inguruneko ekonomiak indartzeko ekimenen barnean

**EROSKI-K ARROYABE KONTSERBEN ENPRESA
SARITU DU, TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ALDE
EGITEN DUENAGATIK**

- Elikagaien industriako euskal ekoizleen artean banatzen duen sari honen bitartez, EROSKIak aitortu egin nahi du lurrarenganako eta itsasoarenganako errespetua eta enplegua, osasuna eta inguruneko aberastasuna sustatzen dituztenen ongintza eta konpromisoa
- Euskal Autonomia Erkidegoko 450 hornitzaileekin baino gehiagorekin ari da lanean kooperatiba, eta urtero, sektore horretako 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu 400 milioi eurotan erosita

Donostia, 2014ko abenduaren 20a.- Arroyabe kontserben enpresak EROSKIren Iraunkortasunaren aldeko I. saria jaso du gaur; sari horrek aitortzen du lurrarenganako eta itsasoarenganako errespetua eta enplegua, osasuna eta inguruneko aberastasuna sustatzen dituztenen ongintza, konpromisoa eta profesionaltasuna. Agustin Markaide EROSKI Taldeko presidentea eman du saria Donostiako EROSKI Garbera hipermerkatuan egin den ekitaldian.

"Sari honek balioa ematen dio elikagai bereziak ekoizten dituzten enpresa txiki askori; horietako asko gure kultura gastronomikoaren ikono bihurtu dira, gainera, eta funtsezkoak dira, lehen sektorea iraunkorra eta askotarikoa izan dadin", adierazi du Agustin Markaidek. Tokiko elikagaiak eta freskoak bultzatzeko apustua dela medio sortu du kooperatibak sari hau. "EROSKIin konpromiso sendoa hartuta dugu, gure ingurunean dauden nekazaritzako elikagaiak garatzeko. Gure denda bakoitza tokiko produktuak merkaturatzeko plataforma irekia da", gehitu du.

ARROYABE kontserben enpresa bat da, Bermeokoa eta ehun urtetik gora dituen; Hegaluzea lantzen du eskuz. Nabarmenezkoa da enpresa hau, langintza tradizionalaren jakintzari eutsi eta hura garatu duelako, ekoizpen prozesu produktibo eta iraunkor baten bitartez. MSC, Friend of the Sea eta Dolphin Safe ingurumen ziurtagiriak ditu.

Herri botazioa webgunean

Kontsumitzaileek berek aukeratu dute irabazlea EROSKIko webgunearen bitartez. Horren aurretik, epaimahai batek —EROSKIko bazkide kontsumitzaile bat eta bazkide langile bat eta HAZIko ordezkari bat— hautagaitza guztietatik hiru hautatu zituen finalerako.

Hasierako fase honetan, funtsean aztertu eta baloratu da tokiko elikagaien industri ehunari zer ekarpen egin dioten iraunkortasunaren eta aniztasunaren aldetik, dela aldaera edo produktu autoktonoekin, dela ingurumenerako hobeak diren

EROSKI

Dirección de Comunicación Corporativa
OSCAR GONZÁLEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – OFICINA DE PRENSA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

produktuekin, hazkuntzako animalien ongizatea hobetzearekin eta dela ingurumenari aberastasun soziala ematearekin.

Era berean, beste bi finalistak, Harakai eta Gomiztegi nekazaritzako industriako euskal ekoizleak, diplomekin saritu dituzte. 250 abeltzain eta artzain baino gehiago hartzen ditu Harakai kooperatibak, eta baserrien bideragarritasun ekonomikoaren alde egiten du; izan ere, baserriak ezinbestekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko errealitateari eta paisaia, ingurumen eta kultur aberastasunari eusteko. Gainera, abereen hazkuntza eta ongizatea hobetzeko programa iraunkorrak ditu.

Gomiztegi gaztagintza enpresa txiki bat da, batez ere Idiazabal Jatorri Izeneko gaztak egiten dituena eta artaldea Gipuzkoako Aizkorriko larreetan bazkatzen duena. Artzain eta gaztagintza eskolak ere ematen ditu, geure artzainen betiko jakintzari eusteko eta langintza hobetzeko. Bestalde, haren instalazioak balio dute kontsumitzaileak bildu eta sentsibilizatzeko gure kulturaren, gastronomian eta paisaian ardi latxak duen garrantziaz.

Tokiko ekoizpenaren aldeko konpromisoa

EROSKI 245 saltoki ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 450 hornitzaileekin baino gehiagorekin egiten du lan; hala, urtero, sektore horretako 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu 400 milioi eurotan erosita.

Tokiko ekonomiak ahalik eta gehiena indartzea da EROSKIren politika komertziala, ingurunea aberasteko, nekazaritzako elikagaien industriaren alde eginda eta ehun produktiboaren aniztasuna aberastuta.

EROSKI

Dirección de Comunicación Corporativa
OSCAR GONZÁLEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – OFICINA DE PRENSA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es